



LANGILEENTZAKO ELIKAGAIAK HORNITU ETA BANATZEA

3. DOKUMENTUA

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da 2025ean BBUPeko langile eta kolaboratzaileentzako elikadura-produktuen hornidura eta banaketa kontratatzea.

2.- ELIKAGAIEN OSAERA ETA EZAUGARRIAK

Kontratuaren xedean adierazitako lanak honako hauek izango dira:

Hornitzea eta bilketa-guneetan edo etxeetan eskuragarri jartzea, ondoren zehazten diren eduki eta prezioen arabera. Horniketak berekin dakar produktuak adierazitako lantokietan edo bilketa-gune batean banatzea, Bilbon edo udalerri mugakide batean, bai eta etxera bidaltzea ere, zehazten den kasuetan.

Eskaintzak aurkezteko, kontratua **ELIKAGAIEN BI LOTETAN** banatuko da:

❑ 1. LOTEA:

725 eta 750 elikagai artean hornitu eta banatzea.

1. LOTE honetarako eskaintzak hiru aukera izango ditu (A, B eta C), prezio berarekin.

A AUKERA

Eskaintako produktuak askotarikoak izatea eta horien kopurua lehenetsiko dira.

OINARRIZKO EDUKIA

2	botila Brut Nature cava
1	botila erreserbako ardo beltz
1	botila ardo zuri
1	botila likore (whiskia, Cognaca, brandya...)
1	zorro kalitate goreneko turroi gogor (300 g)
1	zorro kalitate goreneko turroi bigun (300 g)
1	lata aparteko kalitateko zainzuri (kilo erdi; 8-10 zainzuri)
1	kartoizko kaxa dekoratu

BESTE PRODUKTU BATZUK

Era berean, aipatutakoez gain, beste produktu batzuk ere eskaini ahal izango dira, hala nola urdaiazpikoa, gazta, solomoa, patea, hegaluzea eta bidezko merkataritzako produktuak (denak ere ontziratuta), unitateko 124,79 eurora iritsi arte (BEZ-A BARNE).

B AUKERA:

Kalitatea lehenetsiko da (jatorri-deitura, gama altuko gourmet-produktuak, jatorri ekologiko ziurtatua, bidezko merkataritza, hurbileko ekoizpena, animalien ongizatea...), produktu gutxiago sartzen badira ere sorta bakoitzean. Produktuak eskaini ahal izango dira unitateko 124,79 eurora iritsi arte (BEZ-A BARNE).

Aukera horretan ez da oinarrizko edukirik ezartzen, eta, beraz, enpresa lizitatzailerak eskainiko ditu aukera horretan sartzen diren produktuak, sortaren kalitate- eta oreka-irizpidea kontuan hartuta.

C AUKERA:

Aukera honetan ezin da edari alkoholodunik sartu, eta ez dago nahitaezko gutxieneko edukirik. Produktuak eskaini ahal izango dira unitateko 124,79 eurora iritsi arte (BEZ-A BARNE).

Eskatutako kalitate-estandarren eta kalitate-prezioari buruzko balorazioaren arabera, 1. LOTEKO hiru aukeretako batean ere ez da onartuko 112,56 eurotik beherako sorten unitateko preziorik (BEZa barne).

Adjudikazioa egin ondoren, Partzuergoak A, B edo C aukera bakoitzean hornitu eta banatu beharreko unitateen kopurua zehaztuko du.

❑ 2. LOTEA:

100 eta 145 elikagai artean hornitu eta banatzea, eduki honen arabera:

OINARRIZKO EDUKIA

- 1 botila Brut Nature cava
- 1 botila erreserbako ardo beltz
- 1 botila ardo zuri
- 1 botila likore
- 1 zorro kalitate goreneko turroi gogor (300 g)
- 1 zorro kalitate goreneko turroi bigun (300 g)
- 1 kartoizko kaxa dekoratu

BESTE PRODUKTU BATZUK

Era berean, beste produktu batzuk ere eskaini ahal izango dira, 60 eurora iritsi arte (BEZ-A BARNE).

1. LOTEAN bezala, eskatutako kalitate-estandarrek eta kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta, ez da onartuko 55 eurotik beherako sorten prezio unitariorik (BEZa barne).

Ontzi bakoitzaren kanpoaldean argi eta garbi adierazi beharko da barruan duen lote mota. Horregatik, 1. LOTEKOETAN, zein taldetakoa den ere adierazi beharko da: 1 A taldea, 1 B taldea edo 1 C taldea edo 2 taldea.

3.- ELIKAGAIEN BANAKETA

BBUPek enpresa adjudikaziodunari adieraziko dio zenbat sorta banatu behar dituen, banaketa-modalitate hauen arabera:

1. kolektiboa: sortak Bilboko edo udalerri mugakideko banaketa-zentroan eskura jartzea. Enpresa adjudikazioduna arduratuko da puntu honetako banaketaz. 2. loteko unitate-kopuruari dagokio (100 eta 145 artean).

2. kolektiboa: sortak BBUPen lantokietan entregatzea. Data eta unitate-kopurua adostu egingo dira. Hauetan entregatu beharko dira, besteak beste:

Beteluriko EUTa: Buia-Arrigorriaga errepidea z.g. 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

Galindoko HUA Maestro Jose zeharbidea z.g. 48910 Sestao (Bizkaia)

Bermeoko EUTa - Almike errepidea, 5-7 48370 BERMEO (Bizkaia)

Burgoako EUTa - Mendieta auzoa - 48320 AJANGIZ (Bizkaia)

Lamiarango HUA - Lamiaran-Aranburu industrialdea z.g. 48360 MUNDAKA (Bizkaia)

BBUP arduratuko da kolektibo honi banatzeaz. 270 unitate gutxi gorabehera.

3. kolektiboa: sortak etxera bidaltzea, BBUPek emandako helbideetara. Bitan entregatzen saiatu eta bitan huts egiten bada, beste banaketa-zentro batean jaso beharko dira produktuak (Bilbon edo udalerri mugakide batean egongo da, gutxienez). Enpresa adjudikaziodunak entrega bakoitzerako ordu-tarte bat adostu beharko du. 480 unitate gutxi gorabehera.

Enpresa adjudikaziodunak telefono-zenbaki bat jarriko du kontratuaren eskura, zerbitzuarekin lotutako gorabeherak kudeatzeko.

4.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

Adjudikazioaren ondorioetarako, bi elikagai-LOTETAN banatzen da kontratua, eta horien prezioak ere adierazten dira. Eskaintzaileek bi taldeetarako proposamenak aurkeztu beharko dituzte.

Talde bakoitzaren prezioa benetan emandako eta banatutako sorta-kopuruaren araberakoa izango da.

Hala ere, kontsignazio erabilgarria honako hau da:

1. LOTEa: $750 \times 124,79 \text{ €} = 93.592,50 \text{ €}$ (BEZ-A BARNE)

2. LOTEa: $145 \times 60 \text{ €} = 8.700 \text{ €}$ (BEZ-A BARNE)

5.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratu hau alda daiteke, hasierako aurrekontuaren % 2 gehienez, plantilla handitu edo txikitu izanaren ondorioz.

6.- ENTREGA-EPEAK ETA ITZULKETAK BIRJARTZEA

Sortak 2025eko abenduaren 16an, 17an eta 18an entregatuko dira. Sortak entregatzeko beste egun batzuk (horien aurrekoak) adostu ahal izango dira enpresa adjudikaziodunarekin.

Lantokiak irekita dauden ordutegian entregatuko dira salgaiak; aurretik adostu beharko da ordutegia kontratuaren zuzendaritzarekin. Banaketa-puntuan entregatzeko ordutegia baloratu egingo da. Gutxienez, hau izango da banaketarako tartea: 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Etxerako bidalketen kasuan, bitan entregatzen saiatu eta bitan huts egiten bada, beste banaketa-zentro batean jaso beharko dira produktuak (Bilbon edo udalerri mugakide batean egingo da, gutxienez).

Produktu akastunak edo hondatuak aldatzeko epea bi lanegunekoa izango da gehienez.

Pertsonen zerrenda emango zaio enpresa adjudikaziodunari, produktuak jasotzeko. Produktuak jasoko dituzten pertsonak behar bezala identifikatu beharko dira (BBUPen identifikazio-txartela, NANA, pasaporte edo gidabaimena). Sorta beste pertsona baten izenean jasotzeko, nahitaezko baimen-agiria entregatu beharko da.

Jasotako produktuen txostena entregatuko zaio BBUPi; argi eta garbi adierazi beharko ditu produktuak jaso dituenaren datuak (izen-abizenak eta NANA).

7.- DATU PERTSONALAK BABESTEA

Zerbitzua behar bezala gauzatzeko behar diren datu pertsonalak produktuak entregatzen direla ziurtatzeko baino ez dira erabiliko, eta ez beste zernahi helburutarako.

Illo horretan, enpresa adjudikaziodunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko du bermatzeko, batetik, entrega-lanak egiteko emango diren datu pertsonalak babesteko eta, bestetik, datuen konfidentzialtasuna. Gainera, Datuen Babeseko Lege Organikoaren arloko klausulak sinatuko ditu; kontratuaren dokumentazioko **1. eranskinean** daude.



Langileen Arloko arduraduna

Maria Victoria Sedano Ugarte